

Kristautzea: nolako kristautzea?

El Cristianismo nacido hace dos mil años en Palestina, como una secta judía minúscula, ha acogido después en su seno tierras, pueblos y culturas a lo largo y ancho del globo, con tan sólo tres grandes regiones-religiones equiparables: China, India y el mundo musulmán. Tal difusión ha sido fruto de evangelizaciones sucesivas, dentro de un proceso gradual de conversiones personales y colectivas. Y en cada caso con caracteres propios.

Orain dela 2.000 urte Palestinan sortutako Kristautasuna ez zen zabaldu mundura bat-batean, gaur egun bizirik dagoen lurraldeetaraino. Adibidez, Islamak mendebete bakarrean eza gututako hedapen azkarraren antzekorik ez zuen izan Kristautasunak. Ikusiko dugu.

Kristautasunaren abiapuntuak

Lehen kristauak juduak izan ziren, bere ohiko bizitza erlijiosoan Sinagogara joaten zirenak, eta beren Tenplu bakarra Jerusalemen zutenak; beraz. Maila sozial jasoagokoren bat edo beste kenduta, jende xumea, artzain ibiltari, nekazari pobre edo arrantzale saiatuak ziren, kultura eskolatu handirik gabeak. Esan ohi denez, Jesus bera arotz baten semea.

Lehenagoko egokiera askotan bezala, orduko Palestina jendeen joan-etorri ugariko lurraldea suertatu zen, Inperio ezberdinen artean bizi izandakoa, batetik eta bestetik eragin politiko eta kulturalak jaso edo sufritu zituen. Esan beharra dago, gainera, auzoko herri batzuk kulturarik handienekoak izan zituela; gogoratu besterik ez dago Egipto edo Mesopotamia; hain zuzen, aldi batez bietan bizi behar izan zuten juduek. Gaurko Siriako Latakiairen hiri-ondoan dagoen Ugarit famatua bezalako hiriak bertatik bertara zeuden.

Inperio haiek erlijiosoak ere baziren, gainera, beren mitologia eta jainkoekin. Nazareteko Jesusen garaietan, Palestina nolabait ere erli-


jio-anitza zela esan dezakegu, aurreko sasi-jainkoez gain, jainko greko-erromatarrek iritsi berriak baitziren. Hala ere, juduek eta lehen kristauak bereari eutsi zioten, ordea, *Javeh*-ren sinesmen eta erlijiotasunari.

Laster, Jesusekiko zuten sinesmena jentilen artera eramatea erabaki zuten kristauak. San Paulo izan zen horretan misiolariarik azkarrena. Ziliziako Tarso hiri greko-erromatarreko komunitate judutarrean jaio zen Paulo, bizpahiru kulturetako semea, beraz.

Laster Pedro eta Paulo Erroman aurki ditza-kegu, eta apostolu martiri izango dira. Horrela hasi ziren, bada, kristau Misioaren bideak: Testamentu Zaharreko tradizioari gaina hartuta, eta Inperio baten biotzean, behar ziren arrisku guztiei aurre eginez. Kristau herriak predikari eta martiri gisa gogoratu izan ditu haiek eta apostolu guztiak.

Inperio Erromatarra, izatez, tolerantea zen herrien erlijioekin, nahiz eta horrek ere bere mugak zituen. Gizarte hartan Kristautasunak aurrera egin ahala, eta Inperioak III. mendean bere lehen krisi handia ezagutu zuenean, kristauak "arrisku" bihurtu ziren, eta Dezio eta Dioklezianoren pertsegizio-urteak ez ziren gozoak izan (250, 303).

Konstatinok erlijio-askatasun aldarrikatu (313) eta Teodosio I.ak Kristautasuna erlijio ofizialtzat eman zutenetik (380), egoera guztiz aldatu zen kristautentzat: kristau izatea eroso



gertatu zen, eta Inperio kristaututik mugalde jentileetarako Misoia egingarri gertatu. Konbertsioa (ordura arte norbanakoen artean sustatu ohi zena) handik aurrera erabaki sozial, politiko eta orokorra ere izan zitekeen, kristautze beraren modua aldatzen zela.

Nola kristautu, ordea?

Misiolariek Ebanjelioaren mezua lehenengoz entzutera ematen hasi, eta herriak osorik kristautu arteko tartea luzea izan da gehienetan, baina egon da bestelakorik ere, hau da, lehen-dabizi lurraldea edo herri osoa kristautzat aitortu eta ondoren lagundu edo ezarri norbanakoen kristau hezkuntza.

Kristautzeak bere geografia izan du, kristau lurraldeetatik mugaldeetara mantso nahiz bizkorrago hedatu dena. Lehen batean, hiritik hirira zabaldu zen, geroaxeago hiritik inguruko landerrietara; hurrengoan, Elizak ez ezik herri kristautuek antolatutako Misoiak egon dira, eta kasu batzuetan ebajelizatzea eta kolonizazioa elkarrekin batera eraman dira; azkenik, beste modu batez, ez da falta izan misiolari ausart eta bakarkakorik.

Kristaugaiaren erabaki pertsonala, bataio-aurreko dotrina-prestakuntza (*katemenotza*) eta bataioa bera ziren garai batean Elizan sartzeko lehen pausoak. Eliz antolamenduaren aldetik, berriz, Gotzainaren inguruan eratzen zen kristauarte. IV. mendetik hasita sortutako "Kristandadean" Errege eta Gotzainen esanetara moldatu zen gizartea, gizarte-erlijioak bitasun-batasun batean elkartuta.

Geografia eta herri jakin baten kristautze orokorra, normalean, apurka-apurka egiten dute herritarrek, denbora eta espazioa kristautuz (egutegi kristaua, han-hemen lekututako eliza-ermitak), gizartearen antolaera kristau

balioetara ekarriz (ohitura eta legeak egokitu, auzoak *elizate* bihurtu), pentsaerak birmoldatuz. Bien bitartean Eliza barneko aginte-egitura osatzen da, Gotzainengandik herriko Erretore eta apaizenganaino.

Horela taxututakoa Historian behin eta berriz egin eta zaindu behar da, belaunaldi gazteek tradizio kristau hori beregana dezaten. Balio haiek norberetza jatortasun eta maila ezberdinez egin daiteke, eta, edozein kasutan ere, horretarako lanabes sozialak sortu behar dira: elizkizunek, dotrinak eta predikuak beren lana egin behar dute, hori dena zainduko duten gizon-emakumeak prestatu, guztirako erakundezko baliabideak sortu eta eratu...

Tartean dago, noski, inkulturazio arazoa, hau da, herri bati une eta leku jakinetan Ebanjelioa eta kristautasuna nola emango zaizkion erabakiko duen politika. Misiolantzerako hizkuntzaren bat hautatu behar da, lehendik indarrean zeuden ohitura erlijiosoetatik aukuratu egiten da, zer bai, zer ez. Elkarbizitza eta denen kulturarako berritasunak datoz, edota lehengoa onartzean ere ohituren ulerkeria berria.

Jainkoa, mundua, gizakia eta heriotzondoak –lehengoa errespetatuz ere– ikusberritu egingo dira, koherentzia berri bat lortu arte, beharbada ez belauen artean harremanak tenkatu gabe.

Edozein erlijio berri onartzeak sakoneko aldakuntzak dakartza herrien kulturetan, eta alderantziz: kultur errespetuz egindako konbertsioak, erlijio berriaren aurpegia ere itxuraldatu egin dezake. Oso nabaria izan da hori budismoa Indiatik Txinara pasatzean. Adibide bat da.

Joseba Intxausti